



2016KO IRAILAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez hone-tarako deialdia egin delarik, Felix Urkoia Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2016ko irailaren 8an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen dela-rik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2016ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 73 zbk.dun fakturen zerrenda, bere es-pedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEI-TA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZETIMO (75.992,96 €)takoa onartzea era-bakitzen da.

III.-Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko diru laguntzak arautzeko oi-narrien onarpena.-

Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daude-nak berritu eta modernizatzeko diru laguntzak eman nahi dira 2016ko ekitaldian eta hau horrela Etxebizitza eta Ekonomia Jarduera Batzordeak diru laguntza hauek arautuko ditu-en oinarriak, eta 2016ko ekitaldirako deialdia onartzea proposatzen du.

LAZKAOKO
UDALA

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraiek batzordeko bilkura horretara ez zu-tela joaterik izan eta gai honi buruzko informaziorik ez dutela. Eta hau horrela izanda gaia hurrengo Tokiko Gobernu Batzorderako ezin al dan utzi.

Alkateak erantzuten dio diru laguntza hauek aurten eman nahi direla eta hori ho-rrela izanda eta kontuan izanda oinarriak hasierakoz onartzen direla eta gero hoge-i hamar eguneko denboraldian jendaurrean egon behar dutela behin betikoz onartu aurretik epeak joan egingo liratekela eta ezin dela hurrengorako utzi. Eta esan denagatik, alegazioak egi-teko denbora badagoela naiz orain hasierakoz onartu.

Aran zinegotziak esaten du hori horrela izanda beraiek abstenitu egingo direla.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentziaz (EH Bildu), honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berri eta modernizatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak eta 2016ko deialdia, bere espedientean daudenak, hasierakoz onartzea.
- 2.- Onarpen hau jendaurrean jartzea 30 eguneko denboraldian.
- 3.- Jendaurreko erakustaldi epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikotzat hartutakoa joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du merkatariekin lantzen ari diren gaien inguruko oso informazio gutxi dutela eta informazioa izatea nahiko luketela, eta beraiekin egiten diren bileretan egotea. Baita ere esaten du hauetako batzuk kexatu direla beraiei ez zaie-lako hotsegiten bilera horietara.

Alkateak erantzuten dio berak dakien arte tabernariekin bi bilera egin direla eta informazioa tabernari guztiei bidali zaiela.

Baita ere esaten dio merkatariekin Etxebizitza eta Ekonomi Jarduera gaietarako izendatuta dagoen zinegotzia egoten dela, bere lana delako kudeaketa hori egitea eta galdetzen dio ea berak batzordean egon nahi al duen.

Aran zinegotziak baietz erantzuten dio, egon nahi duela.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

